

Bigarren bilera



Sinodo-seneko Eleizaren alde
alkartasuna | partaidetza | misioa

BIDEAN GOAZ, JAINKOAREN HITZA ENTZUNEZ ETA FEDE ETA BIZIA OSPATUZ

“Bidean elkarrekin joango bagara” ezinbestekoa da elkartean Hitza entzutea eta Eukaristia ospatzea.

1.- OTOITZA

Zati hau bileraren hasieran egingo bada ere, egokia da partaide bakoitzak aurretik etxean prestatzea.

- Laguntza-erregua Espiritu Santuari bilerari ekiteko:

“Adsumus, Sancte Spiritus”..

- Apostoluen Eginetatik (2,42.44-47)

«Denak (sinestedunak) apostoluen irakaspenak entzuteari eta elkarte-bizitzari emanak bizi ziren, ogi-zatitzea eta otoitza elkarrekin egiten zituztelarik. Fededun guztiak elkaturik bizi ziren, eta dena denentzat zeukaten: beren lur eta ondasunak saldurik, guztien artean banatzen zuten dirua, nor zer behar zuen. Egunero bildu ohi ziren tenpluan, baina ogia etxeetan zatitzen zuten, otorduak elkarrekin pozik eta bihotz xaloz eginez. Jainkoa goستن zuten, eta herri osoaren estimazioa zuten. Eta Jaunak egunetik egunera gehitzen zizkion elkarteari salbatzen zirenak».

(ISILUNEA)

- Prestatzeko Agiritik (PA 13)

“ Kontzilioak nabarmendu du, bataioan, Espiritu Santuaren igurtzia hartu duten «fededunek osotasunean harturik, ezin huts egin dezakete fedean. Eta hain berea duten ezaugarri hau herri osoaren fedearen naturaz gaindiko zentzuan agertzen dute, apezpikuengandik hasi eta azkeneko kristau laikoarenganaiko, fede eta moral gaietan bat datozela adierazten dutenean» (LG, n. 12). Espirituak gidatzen ditu sinestedunak «egia beteraino» (Jn 16,13)... Izan be, «Tradizio Santuak eta Eskritura Santuak Jainkoaren hitzaren gordailu bakarra osatzen dute, Elizaren esku utzia. Gordailu horri atxikita, kristau herri osoak, beren artzainekin bat eginik, apostoluen doktrinan eta elkartasunean, ogi-zatitzean eta otoitzean irauten du beti, eta honela, artzainek eta fededunek estu hartzen dute elkar, helarazitako fedea gorde, praktikatu eta aitortzeko zereginean» (DV, n. 10).

(ISILUNEA)

- **Otoitz-giroan**, idazki hauek eta geure bizipena kontuan hartuta, hausnar ditzagun ondorengo galderok:

Hitza entzutea, liturgia ospakizunak eta otoitza ote dira benetan gure elkarbizitzaren eta misioaren eragile eta gidari gure elkartean?

Nola sustatzen da guztion partaidetza eraginkorra ospakizun guztietan?

Zer egin dezakegu parte hartze hori hobetzeko?

(ISILUNEA)

2.- BILERAREN GARAPENA

- **Taldekide bakoitzak batera** jarriko du bere otoitzaren eta galderen inguruko hausnarketaren emaitza. **Entzun egingo dugu bakarrik (ez da eztabaidarik izango).**

Jarraian, isilunea egin.

Entzundakoa barneratzeko unea da.

(ISILUNEA)

- **Partaide bakoitzak entzundakoak aditzera eman diona** eta isilunean barneratu duena batera jarriko du. Elkarriketan jardun daiteke, baina entzutea eta errespetua sustatuz, Espiritua taldekide guztien berben bitartez agertzen zaigula jakinda.

Berriz ere isilunea egin.

(ISILUNEA)

- **Partaideek aurreko ataletatik deigarrien gertatu zaiena jakinaraziko dute.** Bizi, batera jarri eta entzundakoaren arabera, galdera egingo diote beren buruari:

Hitza entzuteari eta Eukaristiaren ospakizunari dagokienez, zein hiru urrats ematera bultzatzen gaitu Espirituak elkarrekin joate horretan aurrera egiteko?

3.- AZKEN OTOITZA

Gure Aita, zeruetan zarana...

Adsumus, Sancte Spiritus

Laguntza-erregua Espiritu Santuari sinodo-bilerari ekin aurretik

Hemen gauzkazu, Espiritu Santua,
zeure izenean batuta.

Gure benetako aholkulari zarena:
zatoz guregana, gure alde egin,
sartu gure bihotzetan.

Erakutsiezaguzu bidea
erakutsi helmugara nola iritsi.

Ez gaitzela okerreko bidetik joan,
makal eta bekatariei gertatzen zaien bezala

Ezjakintasunak ez gaitzala
gezurrezko bideetatik eraman.

Emaiguzu bereizketaren dohaina,
gure ekintzen oinarrian ez dadin
aurreiritzi eta burutapen faltsurik izan.

Eraman gaitzazu batasunera zuregan,
egia eta zuzentasunaren bidetik
aldendu ez gaitzen,
lur honetako erromesaldian
betiko bizia jadesten ahalegindu baizik.

Zeuri eskatzen dizugu,
Aita eta Semearekin bat,
sasoi eta leku orotan jarduten duzun horri,
gizaldi eta gizaldietan. Amen.

Vatikano II.aren saio bakoitzaren hasieran, 'Adsumus Sancte Spiritus' (latinezko jatorrizko otoitzaren hasiera: "Zure aurrean gagoz, Espiritu Santua") otoitz otoitza egin zen. Sevillako San Isidorori (k. 560-636) egotzi zaion otoitz hau aspalditik eta luzaroan egin izan da Kontzilio, Sinodo eta Elizaren beste hainbat bileratan. Sinodo-seneko bideari ekiteko deialdia egitean, otoitzak arren eskatzen dio Espiritu Santuari guregan jardun dezan graziaz beteriko elkarte eta herri izan gaitzen. 2021-2023 Sinodoari begira, bertsio sinplifikatua proposatzen dugu, edozein liturgia talde edo batzarrek errazago erabil dezan.